

KIRIKIÑO IKASTOLA, K.E.

**2021EKO ABENDUAREN 31KO
URTEKO KONTUAK KUDEAKETA TXOSTENAREKIN
ETA KONTU IKUSKARIEN TXOSTENAREKIN BATERA**

KIRIKIÑO IKASTOLA, K.E.

**URTEKO KONTUEN
KONTU IKUSKAPENENKO TXOSTENA
2021EKO ABENDUAREN 31N**

KIRIKIÑO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAren
bazkideei:

Iritzia

KIRIKIÑO IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAren (Sozietatea) urteko kontuak auditatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2021eko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2021eko abenduaren 31n Sozietatearen ondarearen eta egoera finantziarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantziarioaren araudiaren arabera (memorian 2. oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

Iritziaren oinarria

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, *Urteko Kontuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna* atalean zehazten da.

Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu urteko kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzaileren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontuen auditoretzan oker materialak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Auditoretza-txostenean jakinarazi beharko liratekeen esanguratsutzat hartu behar diren arrisku gehiago ez daudela zehaztu dugu.

Bestelako informazioa: kudeaketa-txostena

Bestelako informazioak 2021 ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik biltzen du; beraz egitea administratzaileen erantzukizuna da eta ez dago urteko kontuen barne.

Urteko kontuei buruzko gure auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Gure erantzukizuna kudeaketa-txostena dela eta, Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudiaren arabera, hauxe da: kudeaketa-txostena eta urteko kontuak bat datozen aztertzea eta informatzea aipatutako urteko kontuen auditoretzan lortutako sozietatearen ezagupenean oinarrituz, eta baita kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena jarraitu beharreko araudiarekin bat datozen ebaluatzea eta informatzea. Egindako lanean oinarrituz hutsegite esanguratsurik dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko beharra dugu.

Egindako lanean oinarrituz, aurreko paragrafoan deskribatutakoa, kudeaketa-txostenak biltzen duen informazioa 2021 ekitaldiko urteko kontuekin bat dator eta bere edukia eta aurkezpenak aplikagarria den araudia jarraitzen du.

Urteko kontuen inguruan, administratzaileen erantzukizuna

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak egitea, Sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik oker materialik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontuak prestatzen, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek sozietatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik oker materialik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea. Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen oker material bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta

hartuta, urteko kontuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espanian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:


- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, oker materialak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak disenatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurragatik gerta daitekeen oker materiala ez antzemateko arriskua, errakuntzagatik eman daitekeen oker materiala ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez egitearen, nahita egindako adierazpen okerrren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaera edo baldintzek, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrollean antzemandako balizko esanguratsuak jakinarazteko ere.

Administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontuen auditoretzan adierazgarrienak direnak zehaztu ditugu, hauek izanik, ondorioz, gure ustez arriskurik garrantzitsuenak.

Arrisku hauek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek gaia argitaratzea debekatzen ez badute.

CONSULTORES Y AUDITORES ALTER 1990, S.L.P.
(Sociedad inscrita en el R.O.A.C. con el nº S-0826)



Fdo.: Gorka Zulaica García(20.294)

2022ko martxoaren 31n

KIRIKIÑO IKASTOLA K. E.

**2021EKO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTUAK
KUDEAKETA TXOSTENAREKIN BATERA**



• Biloko Ikastola •

KIRIKIÑO IKASTOLA, S.KOOP.
2021 EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION EGOERA BALANTZEA

AKTIBOA	OHARRA	2021	2020
A. AKTI BO EZ KORRONTEA		4.088.663	4.190.701
I. Ibilgetu ukiezina	5 . Oharra	-	2.462
5. Aplikazio informatikoak		-	2.462
II. Ibilgetu materiala	6 . Oharra	3.863.673	4.020.225
1. Lurrak eta eraikuntzak		2.510.494	2.678.803
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak		1.353.179	1.341.422
IV. Taldeko enpreselako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	7 . Oharra	131.301	119.439
1. Ondare-tresnak		131.301	119.439
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	8 . Oharra	93.689	48.575
1. Ondare-tresnak		2.902	2.902
2. Hirugarrenetik hartzeak		90.787	45.673
B. AKTI BO KORRONTEA		732.676	470.489
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		523.957	216.726
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik		168.854	149.134
5. Zerga korrontearen aktiboak	17 . Oharra	-	182
6. Administrazio Publikoetik bestelako hartzeak	9 . Oharra	355.103	67.410
VI. Epe laburreko periodifikatzeak		29.691	5.849
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balokideak		179.028	247.914
1. Diruzaintza		179.028	247.914
AKTIBOA GUZTIRA		4.821.339	4.661.190
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRA	2021	2020
A. ONDARE GARBIA		2.848.083	2.649.313
A.1 Funtz propioak		2.561.880	2.561.746
I. Kapitala	10 . Oharra	162.795	161.835
1. Kapital eskrituratua		162.795	161.835
II. Erreserbak		2.400.144	2.389.177
3. Estatutu - erreserbak	11 . Oharra	13.006	10.386
4. Bestelako erreserbak	11 . Oharra	2.387.140	2.378.791
V. Kooperatibaren emaitza (positiboa edo negatiboa)	3 . Oharra	(1.061)	10.734
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legaluak	13 . Oharra	286.203	87.567
B. PASIBO EZ KORRONTEA		1.011.447	1.307.623
III. Epe luzerako homidurak		223.623	270.209
1. Pertsonalaren epe luzeko lanarien obligazioak	14 . Oharra	223.623	270.209
IV. Epe luzerako zorrak		787.824	1.037.414
2. Kreditu-entitateetiko zorrak	15 . Oharra	787.824	1.037.414
C. PASIBO KORRONTEA		961.809	704.254
I. Heziketarako eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioa (HKS)	12 . Oharra	-	1.193
V. Epe laburreko zorrak		270.997	269.779
2. Kreditu - entitateetiko zorrak	15 . Oharra	249.262	246.976
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	16 . Oharra	21.735	22.803
VII. Hartzekodun komertzialak eta ordainteko bestelako kontuak		690.812	433.282
1. Hornitzaileak		406.412	157.008
4. Pertsonala (ordaintzeko dauden lanariak)		20.055	10.257
6. Administrazio Publikoetik bestelako zorrak	17 . Oharra	264.345	266.017
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		4.821.339	4.661.190

2022ko martxoaren 30ean

Osune Bañales	Garikoitz Meabe	Gotzon Lobera	Iñe Elorriaga	Igor Arruza	Jona Bergara
Haizea Etxebeste	Zaskun Mayor	Igor Ormaiztegui	Iraia San Esteban	Iker Villanueva	Garikoitz Zaldibar



KIRIKIÑO IKASTOLA, S.KOOP.
2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION GALDU-IRABAZIEN KONTUA

	OHARRA	2021	2020
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Negozio zifraren zenbateko garbia		1.966.131	1.709.062
b) Zerbitzu-emateak	19.a. . Oharra	1.966.131	1.709.062
4. Hornikuntzak		(1.262.926)	(963.873)
a) Salgaien kontsumoa		(134.340)	(158.901)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa		(158.678)	(161.282)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak		(969.908)	(643.690)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak		4.477.944	4.309.789
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk		25.696	37.781
b) Ekitaldiako emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak		4.452.248	4.272.008
6. Personal-gastuak		(4.616.927)	(4.380.499)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak		(3.507.728)	(3.392.476)
b) Karga sozialak	19.b. . Oharra	(1.109.199)	(988.023)
8. Ustiapeneko bestelako gastuak		(281.712)	(304.604)
a) Kanpoko zerbitzuak		(279.408)	(270.009)
b) Tributuak		(2.304)	(1.730)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak		-	(32.865)
9. Ibilgetuaren amortizazioa	5 eta 6 . Oharrak	(345.242)	(359.193)
10. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	13 . Oharra	68.858	12.319
13. Heziketarako eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioa		-	(1.193)
a) Doikuntzak	12 . Oharra	-	(1.193)
A.1) USTIAPENeko EMAITZA		6.126	21.808
13. Sarrera finantzarioak		46	50
b) Balore-negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak		46	50
b2) Hirugarren enpresetakook		46	50
14. Gastu finantzarioak		(3.459)	(6.328)
b) Hirugarrenetikiko zorrenak		(3.459)	(6.328)
17. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak		(3.774)	(4.796)
a) Narriadurak eta galerak	7 . Oharra	(3.774)	(4.796)
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA		(7.187)	(11.074)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA		(1.061)	10.734
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA		(1.061)	10.734
A.5) EKITALDIKO EMAITZA		(1.061)	10.734

2022ko martxoaren 30ean

Osune Bañales	Garikaitz Meabe	Gotzon Lobera	Irune Elorriaga	Igor Arruza	Josu Bergara
Haizea Etxebeste	Eskun Mayor	Igor Ormaetxeberria	Iratxe San Esteban	Iker Villanueva	Garikaitz Zaldibar

KIRIKIÑO IKASTOLA, S.KOOP.

2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRIA LABURTUTA

A) 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIAN KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA

	OHARRA	2021	2020
A) Galdu-irabazien kontuaren emaitzak		(1.061)	10.734
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak			
III. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		267.494	-
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak guztira		267.494	-
Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak			
VIII. Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		(68.858)	(12.319)
C) Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak guztira		(68.858)	(12.319)
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA		197.575	(1.585)

B) 2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA

	Kapital Eskuraturua	Bestelako erreserbak	Kooperatibaren emaitza	Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	Guztira
A) 2019KO URTE-AMAIERAKO SALDOA	162.390	2.387.844	1.153	99.886	2.651.273
B) 2020KO URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	162.390	2.387.844	1.153	99.886	2.651.273
I. Sarrera eta gastu kontabilizatuak guztira	-	-	10.734	(12.319)	(1.585)
II. Bazkide edo jabeekiko eragiketak					
1. Kapital-gehitzeak	900	180	-	-	1.080
2. (-) Kapital-gutxitzeak	(1.455)	-	-	-	(1.455)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	1.153	(1.153)	-	-
C) 2020KO URTE-AMAIERAKO SALDOA	161.835	2.389.177	10.734	87.567	2.649.313
D) 2021EKO URTE-HASIERAKO SALDO DOITUA	161.835	2.389.177	10.734	87.567	2.649.313
I. Sarrera eta gastu kontabilizatuak guztira	-	-	(1.061)	198.636	197.575
II. Bazkide edo jabeekiko eragiketak					
1. Kapital-gehitzeak	1.170	235	-	-	1.405
2. (-) Kapital-gutxitzeak	(210)	-	-	-	(210)
III. Ondare garbiaren bestelako aldakuntzak	-	10.734	(10.734)	-	-
E) 2021EKO URTE-AMAIERAKO SALDOA	162.795	2.400.146	(1.061)	286.203	2.848.083

2022ko martxoaren 30ean

Josune Bañales	Garikoitz Meabe	Gotzon Lobera	Iruñe Elorriaga	Igor Arruza	Garikoitz Bergara
Haizea Etxebeste	Izaskun Mayor	Igor Ormaetxeberri	Iñaki San Loteban	Iker Villanueva	Garikoitz Zaldirar



KIRIKIÑO IKASTOLA, S. KOOP.
2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIKO DIRUZAINITZA FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	OHARRA	2021	2020
A) USTIAPIEN-JARDUERETA KO DIRU-FLUXUAK			
1. Ekitaldiko zerga aurreko emaitza		(1.061)	10.734
2. Emaizaren doikuntzak		233.211	336.981
a) Ibilgetuaren amortizazioa (+)		345.242	359.193
c) Hornidura-aldaketak (+/-)		(46.586)	(17.364)
d) Diru-laguntzen egozpena (-)		(68.858)	(12.319)
g) Sarrera finantzarioak (-)		(46)	(50)
h) Gastu finantzarioak (+)		3.459	6.328
k) Heziketarako eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioa		-	1.193
3. Kapital korrantearen aldaketak		(119.850)	90.519
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak (+/-)		(307.231)	74.198
c) Bestelako aktibo korranteak (+/-)		(23.842)	10.591
d) Hartzekodunak eta ordaintzeka bestelako kontuak (+/-)		257.530	(2.810)
f) Bestelako aktibo eta pasibo ez-korranteak (+/-)		(46.307)	8.540
4. Ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuak		(3.413)	(6.278)
a) Interesen ordainketa (-)		(3.459)	(6.328)
c) Interes-kobrantzak (+)		46	50
5. Ustiapen-jardueretako diru-fluxuak		108.887	431.956
B) INBERTSIO-JARDUERETA KO DIRU-FLUXUAK			
6. Inbertsioen ordainketak (-)		(198.089)	(78.445)
c) Ibilgetu materiala		(186.227)	(60.045)
e) Bestelako aktibo finantzarioak		(11.862)	(18.400)
8. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak		(198.089)	(78.445)
C) FINANTZAKETA-JARDUERETA KO DIRU-FLUXUAK			
9. Ondare-tresnen kobrantzak eta ordainketak		268.689	(375)
a) Ondare-tresnen jaulkipena (+)		1.405	1.080
b) Ondare-tresnen amortizazioa (-)		(210)	(1.455)
c) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak (+)		267.494	
10. Pasibo finantzarioko tresnen kobrantzak eta ordainketak		(248.373)	(272.042)
b) Itzulketak eta amortizazioak		(248.373)	(272.042)
2. Kreditu-entitateekiko zorrak (-)		(247.305)	(245.528)
4. Bestelako zorrak (-)		(1.068)	(26.514)
12. Finantzaketa-jardueretako diru-fluxuak		20.316	(272.417)
E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/GUTXITZE GARBIA			
Ekitaldia edo baliokideak ekitaldi-hasieran		247.914	166.820
Ekitaldia edo baliokideak ekitaldi-amaieran		179.028	247.914

2022ko martxoaren 30ean

Josune Bañales	Garikoltz Meabe	Gotzon Labera	Iñaki Elortza	Igor Arruza	Iker Bergara
Haizea Etxebeste	Iñaki Mayor	Igor Ormaetxeberria	Iñaki San Esteban	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldirar



KIRIKIÑO IKASTOLA, K. E.

2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO

URTEKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

(1) Sozietatearen Jarduera-

Sozietatea 1977ko apirilaren 18an eratu zen, eta bere helburua honako funtsezko ardatzetan oinarritzen da:

a) Eskola-esparruan euskara izango da harremanetarako, transmisiorako eta irakaskuntzarako hizkuntza. Eleaniztasuna bultzatuko da, zertarako eta ikasleek hiru hizkuntza edo gehiago erabili ahal izan ditzaten; dena den, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak behar bezala jakitea bermatuko da.

b) Ikasleak gizakiaren transzendentzia nabarmentzen duten sinesmen eta balioetan heziko ditu, eta gizarte demokratiko baten balioak sustatuko ditu, baita nor bere buruari dion begirunea eta besteei zor diena. Gainera, erantzukizuna, askatasuna, elkartasuna eta gizartea hobetzeko beharra sustatuko da ikasleengan.

c) Euskal kultura sustatuko du, baina beste kultura batzuetara zabaltzea bultzatuko du.

d) Esperimentazioa, berrikuntza eta etengabeko prestakuntza bultzatuko du.

e) Ekintza osagarriak indartuko ditu. Kirol-ekintzetan parte-hartzea eta elkarlana nagusituko zaio lehiari.

f) Irakaskuntzaren jarduna berdintasunerako hezkuntzarantz bideratuko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin sei urtetarako sinatutako kontzertu-araubidearen babesean hartutako konpromisoak bete beharko ditu Sozietateak. Izan ere, kontzertu hori 2016/2017 ikasturteaz geroztik dago indarrean.

Sozietatearen jardun-esparrua Bizkaira mugatzen da, eta mugarik gabeko iraupena du.

 Jesus Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Esteban Mayor	 Igor Ormaetxea Berria	 Iratxe San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



(2) Urteko Kontuak Aurkezteko Oinarriak-

a) Irudi zehatza-

Erantsitako urteko kontuak, 2021eko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiari dagozkionak, Sozietatearen kontabilitate-erregistrotik lortu dira eta Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duen 1514/2007 Errege Dekretuarekin eta derrigorrezko kontabilitate-arau guztiekin bat aurkeztu dira. Honela, eta alderdi esanguratsu guztietan, ondarearen, finantza-egoeraren eta ekitaldian egondako operazioen emaitzen, ondare garbiaren aldaketan eta eskudiruflexuen irudi zehatza adierazten dute.

Halaber, 1514/2007 Errege Dekretuko bostgarren Xedapen iragankorrek diotenaren arabera, hainbat sailkapen berri barne hartzen dituzte, kooperatiben kontabilitate-gaiei buruzko arauak onartzen dituen abenduaren 21eko EHA/3360/2010 Agindua betez.

2020ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko kontuak Sozietatearen 2021eko ekainaren 9ko Batzar Nagusian onartu ziren.

Bazkideen Batzar Nagusiak 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontuak onartu ez dituen arren, Sozietatearen Administrazioaileak ez dute espero urteko kontuak onartzearen ondorioz kontu horietan aldaketa garrantzitsurik gertatzea.

b) Kontabilitate abiaburuak-

Finantzetako egoera orriak egiteko aplikatutako kontabilitatearen abiaburuak eta arauak txosten honen 4. oharrean laburtutakoak dira. Ondarean, egoera finantzarioan eta emaitzetan eragina duten derrigorrezko kontabilitatearen abiaburu guztiak aplikatu dira finantzetako egoera orriak egiteko.

2021eko urtarrilaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu da urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua. Errege Dekretu horrek aldatzen ditu: azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Kontabilitate Plan Orokorra; azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Enpresa Txiki eta Ertainen Plan Orokorra; 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutako Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak; eta urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretu bidez onartutako irabazi asmorik gabeko erakundeentzako Kontabilitate Plan Orokorra egokitzeko arauak.

 Osune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Labera	 Irune Elorriaga	 Iago Arruza	 Jon Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iker San Blas	 Iago Ormaetxea Berria	 Haizea San Blas	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



Sozietatearen 2021 ekitaldirako finantza-egoeretan ez da aldaketa adierazgarri izan Kontabilitate Plan Orokorren aldaketetara egokitzearen ondorioz. Kontabilitate Plan Orokorreko aldaketa horiek, funtsean, erregistroari eta balorazioari buruzko arau hauetan dute eragina: 9. Finantza-tresnak eta kontabilitate-estaldurak, 10. Izakinak eta 14. Salmentaren eta zerbitzugintzaren ondoriozko sarrerak.

c) Informazio erkaketa-

Merkatal legediaren arabera, Sozietatearen administratzaileak aurkeztuko dute, balantzearen partida bakoitzarekin, galdu-irabazi kontuarekin, ondare garbiko egoeraren aldaketekin eta Kutxa Fluxuen egoerakin, itxi den ekitaldiaren eta aurreko ekitaldiarenak ere.

d) Informazioaren erantzukizuna eta egindako estimazioak-

Urteko kontu hauetan dagoen informazioa Sozietateko Administrazioaren ardura da.

Sozietateak funtzionatzen ari den enpresaren printzipioaren arabera egin ditu 2021eko ekitaldiko urteko kontuak. Ildo horretan, ez dago jarduerarekin jarraitzeko arriskurik.

2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan noizean behin Sozietateko Administrazioaileek egindako estimazioak erabili dira horietan erregistratuak agertzen diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromiso batzuk baloratzeko. Oinarrian, estimazio horiek honako hauek dira:

- Aktibo zehatzak kaltetzeagatik galerak.
- Aktibo material eta ez-materialen bizi erabilgarria.

Nahiz eta estimazio horiek urteko kontuan formulatu zirenean, eskura zegoen informazio hoberena erabiliz egin, baliteke etorkizunean izandako gertaerekin aldatu behar izana (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan; prospekzio-modura egingo litzateke etorkizuneko galeren eta irabazien kontuetan estimazioaren aldaketa-efektuak onartuz.

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 J. Bergara
 Haizea Etxebeste	 Izaskin Mayor	 Igor Ormaetxea	 Iratxe San Eusebio	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



e) Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatezteko alderdi kritikoak-

2021eko abenduaren 31n sozietateak finantza egoera desorekatua agertzen du pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa den ondorioz.

Administratzaileen iritziz kideen sostengua izatea espero dute lehen adierazitako desoreka finantzarioari aurre egiteko.

(3) Emaizen Banaketa-

Sozietatearen administratzaileak Akziodunen Batzar Nagusiari onartzeko egingo dion 2021eko ekitaldiaren emaitzaren banaketa-proposamena honakoa da:

	Euroak
	Zenbatekoa
Ekitaldiko emaitza, Hezkuntza, Prestakuntza eta Sustapeneko Funtsa zuzkitu ondoren	(1.061)
Ondokoetan banatzeko:	
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(1.061)
	<u>(1.061)</u>

(4) Balorazio-arauak-

Sozietateak 2021eko abenduaren 31ko urteko kontuak lantzerakoan erabilitako balorazio-arau nagusiak, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoei jarraiki, honakoak izan dira:

a) Ibilgetu ukiezinak-

Informatika-aplikazioak: Erakundea kudeatzeko oinarrizko informatika-programak erosteko eta garatzeko kostuei dagokie. Informatika-aplikazioen amortizazioa lau urteko eperako egiten da linealki.

 Jsune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igar Arruza	 Jsu Bergara
 Haizea Ekebeste	 Izaskun Mayor	 Igar Ormaetxeberria	 Iratxe San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



b) Ibilgetu materialak-

Ibilgetu materiala erosketa-kostuaren arabera baloratuta dago, dagokion amortizazio metatua eta izan dituen nariaduraren ondoriozko galerak kenduta. Ibilgetu horren kostu gordina eguneratu egin da. Elementu bakoitza erosteko ordaindutako prezioaz gain, aktiboa erosteari edo fabrikatzeari zuzenean egotz lekizkiokoen eraikuntza-aldian sortutako finantza-gastuak ere kostuan sartuko lirateke, baldin eta urtebetetik gorako aldia behar badute erabiltzeko baldintzetan egoteko. Ekitaldian zehar ez da zenbatekorik aktibatu kontzeptu honetan.

Elementu osoak ordezkatea edo berritzea, ondasunaren iraunaldia areagotuko duten zabaltzeko, modernizatzeko edo hobetzeko kostuak, produktibitatea, edo ahalmen ekonomikoa, besteak beste, ibilgetze materialaren zenbateko handieneko gisa kontabilizatuko dira, ordezkatu edo berritutako elementuen kontabilitate-erretiratzearekin.

Mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak, aldiz, sortzen diren ekitaldiko kostu gisa egotziko dira emaitzetara, sortzapenaren printzipioari jarraituz.

Amortizazioa kalkulatzeko, metodo lineala aplikatzen da aktiboen erosketa-kostuen gainean, horien hondar-balioa kenduta. Aktibo materialen amortizazioaren kontzeptupeko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontuan kontrapartida eginez gauzatzen dira eta, funtsean, elementu guztien batez besteko balio-bizitza zenbatetsiko urteen arabera zehaztutako amortizazio-ehunekoen baliokideak dira. Hona hemen dagokien xehetasuna:

	Urteak
Eraikuntzak	33
Instalazio teknikoak eta makineria	5-10
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzaririk	4-6
Bestelako ibilgetu materiala	4

Ibilgetu materialari eransten zaizkion elementuen amortizazioa, funtzionamenduan hasi eta hurrengo ekitaldian hasten da erregistratzen.

Sozietatearen Administrazioaileen iritziz aktiboen kontabilitate-balioak ez du horien balio berreskuragarria gainditzen.

 Josune Bañales	 Garikaitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayor	 Igor Oriagaberría	 Iñaki Zabala	 Iker Villanueva	 Garikaitz Zaldibar



Aktiboa besterendu edo erretiratzearen ondorioz sortutako irabazia edo galera salmentaren irabaziaren eta aktiboaren liburuetan zenbatekoaren arteko diferentzia bezala kalkulatzen da eta galeren eta irabazien kontuan onartzen da.

c) Finantzaz bestelako aktiboen balioaren nariaduraren ondoriozko galerak-

Aktiboekin kalteengatik galera-probak egiten dira, betiere gorabeherak aldatu edo gertaeraren bat izan ondoren, kontabilitate-balioa ezin daitekeenean berreskura. Kaltearengatik galera onartzen da berreskura daitekeen zenbatekoaren gainean aktiboaren kontabilitate-balioaren gehiegizkoagatik; hori izango da aktiboaren arazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo balioa erabileran, bietatik handiena.

Aurreko ekitaldietan aktiboa onartutako galerak kalteengatik itzuli egiten dira zenbateko berreskuragarriaren estimazioetan aldaketa gertatzen denean; aktiboaren balioa gehitu egiten da aktiboak liburuetan izango lukeen balioaren mugarekin saneamendua egingo ez balitz.

Ekitaldian zehar, Sozietateak aktiboen balioa kaltetzeagatik ez du zenbatekorik erregistratu.

d) Errentamenduak-

2021eko abenduaren 31n, Sozietateak ez dauka inongo errentamendurik.

f) Finantza-tresnak-

Sozietateak finantza-tresnen kapituluan erregistratu ditu enpresa bateko finantza-aktibo bat sortzen duten kontratuak eta, aldi berean, finantza-pasibo bat edo beste enpresa batean ondare-tresna bat sortzen dutenak. Horrenbestez, araua hau aplikatzekoa zaie honako finantza-tresna hauei:

a) Finantza-aktiboak-

Finantza-aktiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

 Jesus Bañales	 Garikoltz Meabe	 Gorka Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Jon Bergara
 Haizea Etxebeste	 Ikerun Mayor	 Igor Ormaiztegui Berria	 Iker Sanjauregi	 Iker Villanueva	 Garikoltz Zaldibar



1) Kostu amortizatuko finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio —kontratu gauzatzearen ondoriozko eskudiru-fluxuak jasotzeko— eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek eskudiru-fluxuak sortzen badituzte zehaztutako datetan —eskudiru-fluxu horiek soilik izango dira printzipalaren kobrantzak eta ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak—.

Ordaindu gabeko printzipalaren zenbatekoaren gaineko kobrantza nagusiak eta interesak baino ez diren kontratuko eskudiru-fluxuak, berez, mailegu arruntaren edo ohikoaren izaera duen akordio bati dagozkie. Edonola ere, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adostu ahal izango da.

Oro har, kategoria honetan merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak sartzen dira (ondasun-salmentan eta enpresaren trafiko-eragiketen ondoriozko zerbitzugintzan sortzen diren finantza-aktiboak, kobrantza atzeratua dutenak), baita merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko kredituak ere, hau da, ondare-tresna eta eratorriak ez izan arren merkataritza-jatorriak ez dutenak eta zenbateko zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak dituztenak, baldin eta enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik badatoz. Hau da, kategoria horren barruan daude kobratu beharreko maileguak eta kontuak, baita mugaeguna finkatua duen zorraren balio adierazgarriak eta zenbatekoa zehatza edo zehazgarria duten kobrantzak ere, betiere merkatu aktibo batean negoziatzen direnean eta sozietateak horiek mugaegunera arte kontserbatzeko asmoa eta ahalmena duenean.

Hasiera batean, arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuetan baloratuko dira. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak, langileei emandako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gaineko ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero da— beren balio nominalaren arabera baloratu ahal izango dira, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Ondorengo balorazioa, beraz, kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira,

 Jesus Bañales	 Garikaitz Meabe	 Gotzon Labera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Holzea Etxebeste	 Jaskun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iñaki Sanjaume	 Iker Villanueva	 Garikaitz Zaldibar



interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten kredituak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira, narriatu direnean izan ezik. Jaulkitzailearen finantza-zailtasunen ondorioz, finantza-aktibo baten kontratuzko eskudiru-fluxuak aldatzen direnean, enpresak aztertuko du ea bidezkoa den balio-narriaduraren ondoriozko galera kontabilizatzea.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta dagoen balioaren artean dagoen diferentziaren ondoriozko narriadurak erregistratzen ditu sozietateak. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, egiten dira beharrezkoak diren balorazio-zuzenketak, baldin eta kategoria horren barnean hartzen den finantza-aktibo baten balioa edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituzten batera baloratutako finantza-aktiboen talde baten balioa narriatu izanaren ebidentzia objektiboa badago, eta narriadura hori, hasierako aitormenaren ondoren, izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorio izan bada eta gertaera horiek etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsietan murrizketa edo atzerapena eragiten badute, beharbada zordunaren kaudimen-gabeziaren ondorioz.

Finantza-aktibo horien balio-narriaduraren ondoriozko galera bi hauen arteko aldea da: batetik, liburuetan duten balioa eta, bestetik, zenbatespenen arabera sortuko dituzten etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa —barnean direla, hala badagokio, berme errealak eta pertsonalak gauzatzearen emaitzazkoak—. Hasierako aitormenaren unean kalkulaturako interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuko dira.

Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak eta horien itzulketak —baldin eta galera horren zenbatekoa ondorengo gertakizun batekin zerikusia duten arrazoiengatik murrizten bada— gastu edo diru-sarrera gisa aitortzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Narriaduraren itzulketaren muga da itzulketaregunean aktiboak liburuetan aitortuta duen balioa, baldin eta balioaren narriadura erregistratu ez balitz.

2) Kostuko finantza-aktiboak

Kategoria honen barruan sartzen dira, besteak beste, taldeko enpresen, taldeaniztunen eta elkartuen ondareko inbertsioak,

 Osune Bañales	 Garikeltz Meabe	<u>Gotzon loben</u> Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Jon Bergara
 Haizea Etxebeste	 Izaskun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iratxe San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikeltz Zaldibar



baita ondare-tresnetan egindako gainerako inbertsioak ere, baldin eta horien arrazoizko balioa ezin bada zehaztu tresna bererako merkatu aktibo batean kotizatutako prezioa erreferentziatzat hartuta, edo ezin bada zenbatespen fidagarririk lortu.

Partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira — haien interesak kontingenteak badira—, baita hasiera batean galdu-irabazien kontuan aldaketak dituen arrazoizko balioaren zorroan sailkatzea bidezkoa zen beste edozein finantza-aktibo ere, haien arrazoizko balioaren zenbatespen fidagarria lortzerik ez dagoenean.

Hasiera batean, kostuan baloratuko dira, hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioan gehi zuzenean atxiki dakizkiekeen transakzioaren kostuan.

Ondorengo balorazioa haien kostuaren arabera egingo da, ken nariaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketen zenbateko metatua.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, beharrezkoak diren balio-zuzenketak egiten dira, betiere inbertsio batek liburuetan duen balioa berreskurazina denaren ebidentzia objektiboa badago. Sozietateak dagozkion nariadurak liburuetako balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko diferentziagatik erregistratzen ditu. Zenbateko berreskuragarria da bi zenbateko hauen arteko handiena: batetik, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak, eta, bestetik, inbertsioaren ondoriozko etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa. Ondare-tresnen kasuan balio horiek kalkulatu dira, bai partaidetzapeko enpresak egindako dibidendu-banaketaren ondorioz jasotzea espero diren zenbatekoen zenbatespenen bidez eta enpresa horretako inbertsioa besterentzearen ondorioz edo kontuetan baja ematearen ondorioz jasotzea espero diren zenbatekoen zenbatespenaren bidez, bai partaidetzapeko enpresa sortzea espero den eskudiru-fluxuetan izango duen partaidetza kalkulatu —ohiko jardueren ondorioz, edo besterentzeen edo kontuetan baja ematearen ondorioz—.

Ondare-tresnetan egindako inbertsioen zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, aktibo mota horien nariaduraren ondoriozko galeraren zenbatespena kalkulatu da partaidetzapeko erakundearen ondare garbiaren arabera eta balorazioaren datan dauden isilbidezko gainbalioen arabera —zerga-efektuaz garbi—. Balio hori zehaztean, eta partaidetzapeko enpresak beste batean inbertitu badu, Merkataritza Kodearen irizpideak eta hura

 Rosune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gorka Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arriaga	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayor	 Igor Ormaetxea	 Iñaki San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



garatzeko arauak aplikatuz egindako urteko kontu bateratuetan sartutako ondare garbia hartuko da kontuan.

Balioaren nariaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketa aitormena eta, hala badagokio, horien itzulketa gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan. Nariaduraren itzulketa muga izango da itzulketa-egunean aitortuta egongo zen inbertsioaren liburu-balioa, baldin eta balioaren nariadura erregistratu ez balitz.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak-

Eroste-unearen ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galdu-irabazien kontuko diru-sarrera gisa aitortzen dira. Kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez aitortzen dira, eta ondare-tresnetan egindako inbertsioetatik datozen dibidenduen ondoriozko diru-sarrerak, berriz, aitortzen dira haiek jasotzeko eskubideak sortu direnean sozietatearentzat.

Finantza-aktiboen hasierako balorazioan modu independentean erregistratzen dira honako alderdi hauen arabera: mugaeguna; une horretan sortutako eta mugaeguneratu gabeko interes esplizituen zenbatekoa; eta eroste-unean organo eskudunak adostutako dibidenduen zenbatekoa.

Era berean, banatutako dibidenduak zalantzarik gabe eroste-dataren aurretik sortutako emaitzetatik badatoz —erosi zirenetik partaidetzapekoak sortutako irabaziak baino zenbateko handiagoak banatzeagatik—, ez dira sarreratzat aitortzen eta inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

Partaidetzapekoak etekinak sortu dituen ala ez erabakitzeko, kontuan hartzen dira, soil-soilik, banakako galdu-irabazien kontuan eroste-dataz geroztik kontabilizatutako etekinak, salbu eta irabazi horien konturako banaketa, zalantzarik gabe, inbertsioaren berreskuratze gisa kalifikatu behar bada, dibidendua jasotzen duen erakundearen ikuspegitik.

Finantza-aktiboen baja-

Sozietateak finantza-aktiboei baja ematen die finantza-aktiboko eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Labera	 Iñe Elorriaga	 Igor Arruza	 Josy Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iaskun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iñe Elorriaga	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



edo laga direnean, eta horien jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean transferitu direnean. Kobratu beharreko kontuak sortzen dira, oro har, kaudimengabeziako eta berandutzako arriskuak transmititu badira.

Finantza-aktiboari baja ematen zaionean, transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta aktiboak liburuetan duen balioaren arteko diferentziak, gehi zuzenean ondare garbian aitortutako zenbateko metatuak, zehazten dute aktibo hori baja ematean sortutako irabazia edo galera, aktibo hori gertatzen den ekitaldiko emaitzaren parte baita.

Aitzitik, Sozietateak ez die finantza-aktiboari baja ematen, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko finantza-pasiboa aitortzen du, bere jabetzaren berezko arriskuak eta etekinak funtsean atxikitzen dituzten finantza-aktiboen lagapenetan.

Taldeko enpresetan, taldeaniztunetan eta elkartuetan egindako inbertsioak-

Taldeko enpresetan, taldeaniztunetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, hasiera batean, kostuaren arabera baloratzen dira, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera gehi transakzio-kostuak.

Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, Sozietateak ebaluatuko du inbertsioen balioak narriatu diren. Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketak eta, hala badagokio, horien itzulketa gastu edo sarrera gisa erregistratzen dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

Narriaduraren ondoriozko zuzenketa aplikatuko da baldin eta inbertsio baten liburu-balioa berreskurazina denaren ebidentzia objektiboa badago. Balio berreskuragarria bi zenbateko hauen arteko handiena da: batetik, arrazoizko balioaren ken salmenta-kostuen zenbatekoa, eta, bestetik, inbertsioetik eratorritako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa —horiek kalkulatu dira, bai partaidetzapeko enpresak egindako dibidenduen banaketaren ondorioz, inbertsioa besterentzearen ondorioz edo kontuetako bajaren ondorioz jasotzea espero den zenbatekoaren bidez, bai partaidetzapeko enpresak sortzea espero den eskudiru-fluxuetan izango duen partaidetzaren zenbatespenaren bidez—.

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Iñe Elorriaga	 Igor Arruza	 Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayor	 Igor Ormaetxeberria	 Iñaki van Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



Berreskura daitekeen zenbatekoaren ebidentzia hoberik ezean, partaidetzapeko erakundearen ondare garbia hartuko da kontuan, balorazioaren egunean dauden isilbidezko gainbalioek zuzenduta.

Ondare-tresnak eta finantza-pasiboak sailkatzen dira itundutako kontratu-akordioen edukiaren arabera eta funts ekonomikoa kontuan hartuta. Ondare-tresna bat da pasibo guztiak kendu ondoren taldearen ondarean hondar-partaidetza duen kontratua.

Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak-

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutzako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko eta hiru hilabetetik beherako epemugako epe laburrerako beste inbertsio batzuk, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

b) Finantza-pasiboak-

Finantza-pasiboak, balorazioaren ondorioetarako, kategoria hauetakoren batean sailkatzen dira:

1) Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Kategoria honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituztenean eta arrazoizko balioan baloratu behar direnean izan ezik. Oro har, kategorian honetan sartzen dira merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ondoriozko zorrak.

Mailegu arrunt edo ohiko baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategorian horretan sartuko dira, eragiketa zero interes-tasan edo merkaturtik beherako interes-tasan adostearen kalterik gabe.

Hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira. Kontrako ebidentziarik ezean, arrazoizko balioa transakzioaren prezioa da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Nolanahi ere, gehienez urtebeteko mugaeguna duten eta kontratuko

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Jose Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayor	 Igor Ormaetxebarria	 Iñaki Zabala	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



interes-tasa ez duten merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak eta hirugarrenek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak —horien zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero da— balio nominalaren arabera baloratuko dira, betiere eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez denean.

Aurreragoko balorazioa amortizatutako kostuan egiten da. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Dena dela, aurreko atalean xedatutakoari jarraituz, hasiera batean beren balio nominalaren arabera baloratzen diren eta urtebete baino gutxiagoko epemuga duten zorrak zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.

Finantza pasiboen baja-

Enpresak finantza-pasibo bati edo haren zati bati baja emango dio betebeharra iraungi denean, hau da, ordaindu, ezeztatu edo iraungi denean.

Emandako eta jasotako fidantzak-

Obligazio jakin batzuen berme gisa eratutako gordailuak edo fidantzak benetan ordaindutako zenbatekoan baloratzen dira, arrazoizko balioetik nabarmen aldentzen ez den zenbatekoan.

Errentamendu operatiboen ondorioz edo zerbitzugintzen ondorioz emandako edo jasotako fidantzetan, arrazoizko balioaren eta ordaindutako zenbatekoaren arteko aldea hartzen da errentamenduagatik edo zerbitzugintzagatik aldez aurretik egindako ordainketatzat edo kobrantzatzat, eta, errentamendu-aldian edo zerbitzua egiten den aldian, galdu-irabazien kontuari egozten zaio, betiere salmenten eta zerbitzugintzen ondoriozko diru-sarrerei buruzko arauaren arabera.

Fidantzen arrazoizko balioa zenbatestean, geratzen den alditzat hartzen da hitzartutako gutxieneko kontratu-epea; aldi horretan ezin da zenbatekoa itzuli, itzulketaren portaera estatistikoa kontuan hartu gabe.

Epe laburrerako finantza denean, ez da zertan eskudiru-fluxurik deskontatu, baldin eta ondorioa adierazgarria ez bada.

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayor	 Igor Ormaetxeberria	 Iñaki San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



f) Diru-laguntzak-

Jasotako diru-laguntzak kontabilizatzeko, Sozietateak honako irizpideei jarraitzen die:

1. Diru-laguntza ez-itzulgarriak:

Emakidaren jakinarazpena jasotzen den unean emandako guztizko zenbatekoa erregistratzen du Sozietateak diru-laguntza gisa.

Diru-laguntzen xede diren ondasunak amortizatutako epe berean eramango du Sozietateak emaitzetara jasotako diru-laguntzen zenbatekoa, diru-laguntza jasotzen duen inbertsioaren xede diren ondasunak funtzionatzen hasten diren urtetik kontatzen hasita.

2. Ustiapenaren diru-laguntzak:

Emakidaren unean eramaten dira emaitzetara .

g) Saldo arrunten eta ez arrunten sailkapena-

Erantsitako balantzean, saldo arruntak eta ez-arruntak daude. Saldo arruntak dira Erakundeak ustiapen-ziklo normalean saltzea, kontsumitzea, ordaintzea edo egitea espero dituenak. Sailkapen horren barruan sartzen ez diren saldoak berriz, ez-arruntak izango dira.

h) Jarraipen saria-

Sozietateak haborokin bat ordaindu beharko die 55 urte betetzeko unean Sozietatean gutxienez 20 urteko antzintasuna duten eta irakasleak ez direlako Eusko Jaurlaritzaren "ordainketa eskuordetuaren" sisteman barne hartuta ez dauden langileei. Haborokin honen zenbatekoa lau hilerokoren baliokidea izango da eta beste hileroko bat gehitu beharko zaio lehen 20 urteetatik aurrerako bosturteko bakoitzeko.

i) Kalte-ordainak-

Indarrean dagoen lan-araudiari jarraituta, Sozietateak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie langileei, horiekin baldintza jakin batzuetan lan-harremanak deuseztatuz gero. Egoera normaletan

 Osune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñakiun Mayor	 Igor Ormieguezberria	 Iratxe Santaluz	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



etorkizunean gerta daitezkeen kaleratzeen kalkuluetan oinarrituta eta kaleratze horien inguruetan ordaindu beharreko kopuruak balioetsita, kalte-ordain gisa sortutako pasiboa ez da garrantzitsua. Sozietatearen zuzendaritzak ez du ezohiko kaleratzerik espero eta, ondorioz, erantsitako 2021eko abenduaren 31ko balantzean ez da inolako hornidurarik egin kontzeptu honengatik.

j) Mozkinen gaineko zerga-

2021eko ekitaldirako Sozietateen gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren arabera kalkulatu da, etorkizunean islatzen diren aldaketak aintzat hartuta.

Ekitaldi bakoitzeko irabazien gaineko zergaren ondoriozko gastua ekitaldiko zerga-oinarriari aplikatzen zaion karga-mota aplikatuz kalkulatu da, onargarriak diren kenketak aplikatu eta gero eta atzeratutako aktibo eta pasiboen bariazioa gehituta ere.

k) Sarrerak eta gastuak-

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, sarrera eta gastuak eragin dituzten ondasunen eta zerbitzuen benetako korrontea gertatzen denean egozten dira, horien ondoriozko moneta-korrontea edo finantza-korrontea edozein unetan gertatzen direlarik ere.

Edonola ere, zuzentzearen printzipioari jarraituz, Erakundeak ekitaldiaren amaierarako egindako mozkinak soilik kontabilizatuko ditu. Aitzitik, aurreikusi daitezkeen arriskuak eta galerak –balizkoak badira ere– aitortu bezain laster kontabilizatuko dira.

l) Ingurumena-

Administratzaileek baieztatu dute sozietateak ez duela bere ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eraginik izan dezakeen ingurumen alorreko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, diru-hornidurarik edo kontingentziarik.

 Rosune Bañales	 Garikoltz Meabe	 Gorka Lobera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josu Bergara
 Haizea Etxebeste	 Askun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iratxe San Diego	 Iker Villanueva	 Garikoltz Zaldibar



(5) Ibilgetu Ukiezina-

Ibilgetu ukiezinaren kontu desberdinetan eta 2020 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldian metatutako hurrenez hurreneko amortizazioetan erregistratutako mugimenduak honakoak izan dira:

	Euroak	
	Aplikazio Informatikoak	GUZTIRA
A) 2020 EKITALDIA, IREKIERA SALDO GORDINA	152.189	152.189
B) 2020 EKITALDIA, ITXIERA SALDO GORDINA	152.189	152.189
C) 2021 EKITALDIA, IREKIERA SALDO GORDINA	152.189	152.189
D) 2021 EKITALDIA, ITXIERA SALDO GORDINA	152.189	152.189
E) 2020 EKITALDIKO IREKIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(146.703)	(146.703)
Gehikuntzak	(3.024)	(3.024)
F) 2020 EKITALDIKO AMORTIZAZIO METATUA, AMAIERAKO SALDOA	(149.727)	(149.727)
G) 2021 EKITALDIKO AMORTIZAZIO METATUAREN HASIERAKO SALDOA	(149.727)	(149.727)
Gehikuntzak	(2.462)	(2.462)
H) 2021 EKITALDIKO AMORTIZAZIO METATUAREN AMAIERAKO SALDOA	(152.189)	(152.189)
2021 EKITALDIKO AMAIERAKO BALIO GARBIA	-	-

2021eko abenduaren 31n 152.189 euroengatik elementu guztiz amortizatutakoak daude.

(6) Ibilgetu Materialak-

Ibilgetu materialaren kontu desberdinetan eta metatutako hurrenez hurreneko amortizazioetan 2020 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan erregistratutako mugimenduak honakoak izan dira:

Josune Bañales	Garikoitz Meabe	Gotzon Lobera	Irati Elorriaga	Igor Arruza	J. Bergara
Haizea Etxebeste	Iker Muyor	Igor Ormaetxeberria	Iratxe Etxebarria	Iker Villanueva	Garikoitz Zaldibar



Euroak

	Lurrak eta eraikuntzak	Bestelako instalakuntzak, tresneria eta altzariak	Bestelako ibilgetu materiala	Informazio prozesuetarako ekipamendua eta bestelakoak	GUZTIRA
C) 2020 EKITALDIA, HASIERAKO SALDO GORDINA	6.688.906	2.668.294	572.928	504.095	10.434.224
Gehikuntzak	-	27.591	11.370	21.084	60.045
D) 2020 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDO GORDINA	6.688.906	2.695.885	584.298	525.179	10.494.269
C) 2021 EKITALDIA, HASIERAKO SALDO GORDINA	6.688.906	2.695.885	584.298	525.179	10.494.269
Gehikuntzak	-	36.502	33.366	116.360	186.228
D) 2021 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDO GORDINA	6.688.906	2.732.387	617.664	641.539	10.680.497
E) 2020 EKITALDIA, HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(3.841.794)	(1.381.122)	(476.443)	(418.515)	(6.117.874)
Gehikuntzak	(168.309)	(129.928)	(22.033)	(35.899)	(356.169)
F) 2020 EKITALDIA, AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.010.103)	(1.511.050)	(498.476)	(454.414)	(6.474.043)
G) 2021 EKITALDIA, HASIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.010.103)	(1.511.050)	(498.476)	(454.414)	(6.474.043)
Gehikuntzak	(168.309)	(126.281)	(19.978)	(28.212)	(342.780)
H) 2021 EKITALDIA, AMAIERAKO AMORTIZAZIO METATUA	(4.178.412)	(1.637.331)	(518.454)	(482.626)	(6.816.823)
GARBIA 2021 EKO EKITALDIA	2.510.494	1.095.056	99.210	158.913	3.863.673

2018. ekitaldian zehar inbertsio nabarmena burutu zen Gabriel Aresti 22ko eraikinaren patioa erreformatzeko. Inbertsioa guztira 356.901 eurokoa izan zen, eta "ibilgetu materiala - Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materialak" epigrafean erregistraturik dago. Ikastolak mailegua formalizatu zuen urte horretan kreditu-erakunde batekin, hasierako kapitala 380.000 eurokoa izan zelarik, zeina "Kreditu-entitateekiko zorrak" epigrafean erregistraturik dago, bere epemugaren arabera (15. Oharra).

2021eko abenduaren 31n, ikastolaren lursailak eta eraikuntzak hipotekatuta daude, Sozietateak lortutako maileguen berme gisa 2002 eta 2008 urteetan (15. Oharra).

2009ko instalazio teknikoak dagokienez, Egoialde Alkargunea sozietatearen likidazioaren ondorioz eta honek ikastolarekiko zuen zorraren ordainketa jaso zituelako, 891.064 euroko kirol-instalazioak aurkitzen dira.

2021eko abenduaren 31n 1.450.738 euroengatik elementu guztiz amortizatutakoak daude. (2020ko abenduaren 31n 1.419.745 euro).

Osune Bañales	Garikoltz Meabe	Gotzon Lobera	Irune Elorriaga	Igor Arruzza	Iker Bergara
Haizea Etxebeste	Izaskun Meyer	Igor Ormaetxeberria	Iñaki van Estreban	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldibar



(7) Taldeko Enpresetan Inbertsioak-

Epigrafe honetan "ELKARTASUN IKASTOLAK, Europar Kooperatiba Elkarte" sortzeko egin den ekarpena jasotzen da. Elkarte honen helburu soziala enpresen sustapena izango da berauen kapitalean parte hartuz. Urteko mugimendua honakoa izan da:

	Eurotan	
	Ondareko tresnak	GUZTIRA
A) 2020 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	140.050	140.050
Gehikuntzak	23.196	23.196
B) 2020 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	163.246	163.246
c) 2021 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	140.050	140.050
Gehikuntzak	15.636	15.636
D) 2021 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	178.882	178.882
E) ZUZKIDURA, 2020 EKITALDIA HASIERAKO SALDOA	(39.011)	(39.011)
Gehikuntzak	(4.796)	(4.796)
F) ZUZKIDURA, 2020 EKITALDIA AMAIERAKO SALDOA	(43.807)	(43.807)
G) ZUZKIDURA, 2021 EKITALDIA HASIERAKO SALDOA	(43.807)	(43.807)
Gehikuntzak	(3.774)	(3.774)
H) ZUZKIDURA, 2021 EKITALDIA AMAIERAKO SALDOA	(47.581)	(47.581)
SALDO GARBIA	131.301	131.301

Saldo garbia ekarpena eta epe luzera ordaindu beharrekoaren arteko diferentzia da, 2021eko abenduaren 31n 31.237 eurokoa izanik, dagokion balio-narriadura kenduta (46.873 euro 2020ko abenduaren 31n).

(8) Finantza-inbertsioak-

2020 eta 2021eko ekitaldian honako mugimenduak erregistratu dira finantza-ibilgetuaren kontuetan:

Haizea Etxebeste	Izaskun Mayor	Igor Ormaiztegui	Izaskun Mayor	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldibar



Euroak

	Epe luzerako balore kartera	Bestelako kredituak	GUZTIRA
2020 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	2.902	54.341	57.243
Erretiroak	-	(8.668)	(8.668)
2020 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	2.902	45.673	48.575
2021 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	2.902	45.673	48.575
Gehikuntzak	-	53.782	53.782
Erretiroak	-	(8.668)	(8.668)
2021 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	2.902	90.787	93.689
NARRIADURA, 2020KO HASIERAKO SALDOA	-	-	-
NARRIADURA, 2020KO AMAIERAKO SALDOA	-	-	-
NARRIADURA, 2021EKO HASIERAKO SALDOA	-	-	-
NARRIADURA, 2021EKO AMAIERAKO SALDOA	-	-	-
2021 EKITADIKO AMAIERAKO BALIO GARBIA	2.902	90.787	93.689

"Bestelako kredituak" epigrafeko gehikuntza, Eusko Jaurlaritzak erretiro partzialeko kontratuan 2020/2021 ikasturtean barne hartutako langileen Gizarte Segurantzako gainkostua finantzatzeko emandako dirulaguntzari dagokio (13. Oharra). Epigrafe honetako gainontzeko saldoa, Eusko Jaurlaritzak emandako epe luzera kobratzeke dagoen diru-laguntzari dagokio, zeina inbertsioak egiteko 2018ko ekitaldian eskatutako mailegua finantzatzeko eskatu zen.

(9) Administrazio Publikoak-

Erantsitako 2020 eta 2021eko abenduaren 31ko balantzeko aktiboaren epigrafe honen saldoak, funtsean, Eusko Jaurlaritzatik diru-laguntzen kontzeptuan jaso beharreko zenbatekoa islatzen du.

(10) Harpidetutako Kapital Kooperatiboa-

2020 eta 2021eko ekitaldietan, honakoa izan da gaineratzen den balantzeko epigrafe horretan erregistratutako mugimendua:

Jesus Bañales	Garikoltz Meabe	Gotzon Lobera	Iñe Elorriaga	Igor Arruza	Iñe Bergara
Haizea Etxebeste	Izaskun Mayor	Igor Ormaiztegui	Iñe Elorriaga	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldibar



	Euroak	
	Harpidetutako kapitala	GUZTIRA
A) 2020 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	162.390	162.390
Bazkideen ekarpenak	900	900
Bazkide bajak	(1.455)	(1.455)
B) 2020 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	161.835	161.835
C) 2021 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	161.835	161.835
Bazkideen ekarpenak	1.170	1.170
Bazkide bajak	(210)	(210)
D) 2021 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	162.795	162.795

2021eko abenduaren 31n, bazkideek kapital gisa egindako ekarpenek osatzen zuten harpidetutako kapital kooperatiboa. Ekarpen horien zenbatekoa eta aldia Bazkideen Batzar Nagusian adostu ziren.

Bazkide izateko nahitaez egin beharreko ekarpena 30 eurokoa da.

Harpidetutako kapital kooperatiboak ez du gaur egun interesik sortzen.

(11) Erreserbak eta Ekitaldiko Emaizta-

Honakoa izan da, 2020 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietan, ekitaldiko erreserba-kontuetan eta emaitzan erregistratutako mugimendua:

	Euroak			
	Estatuto erreserba	Borondatezko erreserbak	Banaezineko erreserbak	Kooperatibaren emaitza
A) 2019 EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	9.950	1.147.311	1.230.583	1.153
2019ko emaitzaren aplikazioa	256	897	-	(1.153)
2020ko emaitza	-	-	-	10.734
Bestelako mugimenduak	180	-	-	-
B) 2020 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	10.386	1.148.208	1.230.583	10.734
C) 2021EKO EKITALDIA, HASIERAKO SALDOA	10.386	1.148.208	1.230.583	10.734
2020ko emaitzaren aplikazioa	2.385	8.349	-	(10.734)
2021eko emaitza	-	-	-	(1.061)
Bestelako mugimenduak	235	-	-	-
D) 2021 EKITALDIA, AMAIERAKO SALDOA	13.006	1.156.557	1.230.583	(1.061)

Haizea Etxebeste	Izaskun Mayor	Igor Ormaiztegui	Iker San Feliciano	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldibar



Banaezinezko erretserbak-

Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 68. artikulua araberak, Bazkideen Batzar Nagusiak kapital sozialean barne hartuko ez diren eta itzulgarriak izango ez diren sarrera-kuotak eta/edo aldizkako kuotak ezarri ahal izango ditu.

Epigrafe honetan 2007 urterarte bidaliak izan ziren kapitalean barne hartzen ez diren prestazioak daude eta prestazio horiek ez dute inolako interesa jasotzeko eskubiderik ematen.

Nahitaezko erreserba-funtsa-

Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 70. artikuluari jarraituz, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera eta eska daitezkeen zergei erantzutera zuzentzen diren kopuruak kendu ondoren, ekitaldi bakoitzean izandako soberakin garbien %30 gutxienez nahitaezko erreserba-funtsera eta hezkuntza eta sustapen kooperatiborako funtsera zuzenduko da. Horrela, gutxienez %10 zuzenduko da heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako kontribuziora eta %20 nahitaezko erreserba-funtsera.

Nahitaezko erreserba-funtsaren zenbatekoa kapital sozialaren %50era iristen ez den bitartean, heziketarako eta kooperatiba-sustapenerako kontribuzioaren alde ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.

Nahitaezko funtsak zuzkitu ondoren, soberakin garbi erabilgarriak borondatezko erreserba-funtsa eratzeraz zuzenduko dira, Etorkizuneko Galerak Konpentsatzeko Funts Berezia deritzana, hain zuzen ere. Funts hori banaezina izango da likidazioaren kasuan izan ezik.

Sozietatea finkatu, garatu eta bermatzeko nahitaezko erreserba-funtsa bazkideen artean banaezina da, Legean berariaz aurreikusitako kasuetan izan ezik. Funts honetara nahitaez zuzenduko dira Batzar Nagusiak ezartzen duen soberakin erabilgarrien ehunekoak, bazkideen bajak gertatzen diren kasuetan ekarpenetan egindako kenkariak, eta sarrera-kuotak, besteak beste.

Galerak egozteak-

Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 73. artikuluari jarraituz, ekitaldi batean izan diren galerak kontu berezi batera

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Iñe Elorriaga	 Igor Arruza	 Iker Bergara
 Haizea Etxebeste	 Izaskun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iker San Etxebarria	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldivar



zuzendu ahal izango dira, etorkizuneko emaitza positiboen kargura amortizatzen. Halaber, Sozietatearen galerak borondatezko erreserba-funtsekin (baldin badaude), nahitaezko erreserba-funtsekin (aipatutako legeak ezarritako mugen barruan) eta bazkideei egindako egoztearen bidez konpentsatu ahal izango dira.

Bazkide bakoitzari egotzitako galerak zuzenean edo kapital sozialerako ekarpenetan egindako kenkarien bidez ordainduko dira, baita, hala badagokio, bazkideak Sozietatean egiten duen eta egozte ahalbidetzen duen edozein finantza-inbertsiotan egindako kenkarien bidez ere.

(12) Heziketarako eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioa (HKSK)-

Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeari, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzera eta eska daitezkeen zergei erantzutera zuzentzen diren kopuruak kendu ondoren, ekitaldi bakoitzean izandako soberakin garbien %30 gutxienez nahitaezko erreserba-funtsera eta hezkuntza eta sustapen kooperatiborako kontribuziora zuzenduko da. Horrela, gutxienez %10 zuzenduko da Hezkuntza eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuziora eta %20 nahitaezko erreserba-funtsera.

Nahitaezko erreserba-funtsearen zenbatekoa kapital sozialaren %50era iristen ez den bitartean, Hezkuntza eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioaren alde ezarritako gutxieneko zuzkidura erdira murriztu ahal izango da.

Hezkuntza eta Kooperatiba-Sustapenerako Kontribuzioa bahiezina da legez, eta funts horretara zuzenduko dira aurretik aurreikusitako zuzkidurez gain, isunak eta diziplina-bidez Sozietateak bazkideei ezarritako gainerako zigorrak.

(13) Jasotako Diru-laguntzak, Dohaintzak eta Legatuak-

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 1981eko uztailaren 6ko, 1982ko azaroaren 30eko, 1983ko azaroaren 30eko eta 1984ko uztailaren 17ko Aginduen bidez, Sozietateari ikastetxe baten eraikuntza finantzatzeko hainbat diru-laguntza (guztira 138.834 euro) ematea xedatu zuen.

Halaber, 1997ko abenduaren 31n, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 121.705 euroko diru-laguntza eman zuen espazioak egokitzeko obren finantziatorako. Horrez gain, 2001 eta 2008ko ekitaldien arteko aldian 42.768 euroko, hurrenez hurren, diru-laguntzak eman

 Rosune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Iñaki Elorriaga	 Igor Arruza	 Iker Bergara
 Haizea Etxebeste	 Izaskun Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iker Zabala	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



zituen ekipo informatikoak finantzatzeko eta 36.930 euro oztopo arkitektonikoak elimintzeko egin beharreko obrak finantzatzeko. Honez gain, 2018ko abenduaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak Ikastolari Gabriel Arestiko patioan iragazgaizte-lanak eta akaberak egiteagatik eskatutako mailegua finantzatzeko 69.341 euroko diru-laguntza esleitu zion (6.oharra). Zenbatekoa kobratzeke dago 2021eko abenduaren 31n eta balantzeko "Epe luzeko finantza-inbertsioak - Hirugarrenetikiko hartzekoak" eta "Administrazio Publikoetikiko bestelako hartzekoak" epigrafean erregistraturik dago, 32.503 euro eta 8.668 eurotan, hurrenez hurren (41.171 euro eta 8.668 eurotan, hurrenez hurren, 2020ko abenduaren 31n).

2021eko apirilaren 9 eta 2021eko uztailaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Kudeaketa Ekonomikoko Zuzendaritzak, 2020-2021 ikasturtean erretiro partzialeko kontratua barneratu zutenen langileen Gizarte Segurantzako gaineratzen finantzatzeko diru-laguntzak ebatzi zituen, 126.682 euro eta 62.617 eurotan, hurrenez hurren. 2021eko abenduaren 31n kobratzeke dauden zenbatekoak erantsitako balantzeko "Epe luzeko finantza inbertsioak - Hirugarrenetikiko hartzekoak" eta "Administrazio Publikoetikiko bestelako hartzekoak" epigrafeetan erregistraturik daude, 53.682 euro eta 123.693 eurotan, hurrenez hurren.

2021eko ekitaldiari dagozkion diru-laguntza horien amortizazioa 68.858 eurokoa da. Amortizazio hori gaineratzen den galera eta irabazien kontuko "Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestakoen egozpena" epigrafean erregistratu da.

2021eko azaroaren 23an, Hezkuntzako Sailburuak Agindua argitaratu zuen, zeinaren bidez dirulaguntzetarako deialdia egiten baitaie hezkuntza-ituna 2021-2022 ikasturtean indarrean duten EAEko ikastetxeei ikasleentzako ordenagailu eramangarriak eros ditzaten. Urteko kontu hauen formulazio-datan ebazpena argitaratzeke dago eta 90.157 eurotan balioetsi da 2021ean erositako ordenagailuei dagokiena. Zenbateko hori 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko "Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak" epigrafean erregistratu da.

Gaineratzen den 2021eko abenduaren 31ko balantzeko ondare garbia eta pasiboaren epigrafe horren saldoan, emaitzetara eraman gabe dauden diru-laguntzen zenbatekoak jasotzen dira (4.f. Oharra).

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Labera	 Irune Elorriaga	 Igor Arruza	 Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iker San Mayor	 Igor Ormaiztegui	 Iker San Esteban	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



(14) Hornidurak eta Kontingentziak-

Epigrafe honetan, 2011-2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan egindako soldateta murrizketen hornidura jasotzen da gehienbat, finantzazio publikoaren murrizketen ondorioz.

2021eko ekainaren 8an, LAB sindikatua eta Ikastolen Elkartea Partaideren artean, aurreko urteetako soldaten diferentzien ondorioz "2021 urteko akordioa" sinatu zen.

2011-2015 urteetan finantzaketa publikoaren murrizketak sortutako lan sarietan diferentzi ekonomikoak estaltzeko, akordio honen bidez 2021eko oinarritzko soldataren ordainketari %1eko gehikuntza adosten da (%1,4koa Bigarren Hezkuntzako Bigarren Zikloan), ondorioz 27.218 euroko zenbatekoa ordaindu zitzaien.

Era berean, beste egoeratan dauden langileak kontuan hartuz (erretiratuak, erretiratu partzialak, aldi baterako kontratuak,...), ikastola eta aipatutako langileen artean ezarri beharko akordioaren jarraibide orokorrak ezartzen dira.

COVID-19 osasun-larrialdiak sortutako egoera dela eta, ez da posible izan 2020ko martxoan Batxilergoko lehenengo mailarentzako programatuta zegoen Londreserako ikasbidaia egin. Bidaia honen kostua Viajes Ecuador, S.A.-ri ordainduta zegoen, eta nahiz eta Kooperatibak agentzia-bidaiarekin erreklamazio-prozesua abian duen, ezin da jakin ordaindutako zenbatekoa errekerperatu ahal izango den.

(15) Kreditu-enfiteekiko Zorrak-

Erantsitako 2020 eta 2021eko abenduaren 31ko balantzearen epigrafe honen osaera honakoa da:

		2021		2020	
	Interes tipoa	Epe laburrera	Epe luzera	Epe laburrera	Epe luzera
Kutxabank (a)	Euribor + 0,75%	138.170	546.303	136.268	684.847
Kutxabank (a)	Euribor + 0,75%	73.579	18.397	73.568	91.929
Kutxabank (b)	Euribor + 1,00%	37.513	223.124	37.140	260.638
GUZTIRA		249.262	787.824	246.976	1.037.414

Euroak

Haizea Etxebeste	Izaskun Mayor	Igor Ormaetxea	Izaskun Mayor	Iker Villanueva	Garikoltz Zaldibar



(a) Hipoteka-bermea duen mailegua-

Sozietateak jarduera garatzen duen eraikinaren eta lursailaren gaineko hipotekarekin bermatuta daude zerrendatutako finantza-entitateekin hitzartutako maileguak (6. Oharra).

(b) Berme pertsonaleko mailegua – inbertsioen finantzazioa-

Mailegu hau 2018ko uztailaren 23an formalizatu zen, "Kutxabank, S.A." bankuarekin, Gabriel Arestiko eraikineko patioan egindako obra finantzatzeko asmoz, hasierako-kapitala 380.000 eurokoa izanik (6. Oharra). Mailegua 10 urtetan amortizatuko da.

Bestalde, 2021eko abenduaren 31n kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorren epemugak honakoak dira:

	2023	2024	2025	2026 eta hurrengoak	Euroak Total
Kutxabank	138.170	138.170	138.170	131.793	546.303
Kutxabank	18.397	-	-	-	18.397
Kutxabank	37.890	38.270	38.654	108.310	223.124
TOTAL	194.457	176.440	176.824	240.103	787.824

(16) Bestelako Zorrak-

Gaineratzen den 2021eko abenduaren 31ko balantzearen epigrafe honetan erregistratutako zenbatekoan, ikasleen gurasoek, batik bat, ikastolaren finantziatio-premiak estaltzeko egiten dituzten ekarpenak islatzen dira. Ekarpen horietarako ez da itzultze-data jakin bat ezarri.

Ekarpen horien eboluzioa ondorengoa izan da:

 Josune Banales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Iñe Elorriaga	 Igor Arruza	 Iker Villanueva
 Haizea Etxebeste	 Iker Villanueva	 Igor Ormaetxea	 Iker Villanueva	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar

- Euroak -

Ekitaldia	Hasierako saldoa	Ekarpena	Itzulpena	Amaierako saldoa
2001	447.153	52.638	(31.603)	468.188
2002	468.188	69.000	(21.339)	515.849
2003	515.849	209.700	(111.427)	614.122
2004	614.122	18.000	(115.055)	517.067
2005	517.067	-	(41.460)	475.607
2006	475.607	22.000	(49.278)	448.329
2007	448.329	10.000	(38.237)	420.092
2008	420.092	66.000	(134.046)	352.046
2009	352.046		(14.414)	337.632
2010	337.632		(18.010)	319.622
2011	319.622		(39.043)	280.579
2012	280.579		(46.005)	234.574
2013	234.574		(50.601)	183.973
2014	183.973		(42.005)	141.968
2015	141.968		(39.215)	102.753
2016	102.753		(40.652)	62.101
2017	62.101		(39.179)	22.922
2018	22.922		(21.119)	1.803
2019	1.803		(601)	1.202
2020	1.202		-	1.202
2021	1.202		-	1.202

Epigrafe honen saldo handiena "ELKARTASUN IKASTOLAK, Europar Kooperatiba Elkarte"ri ordaintzeke dagoen kapital handitzeari dagokio, zeina 2019ko azaroaren 28ko Batzar Nagusian onartu zen, guztira 15,03 euro Ikastolako ikasle bakoitzeko (2019-2020 ikasturtekoak) bider bost urte. Horrela, Ikastolak guztira, 88.001 euro harpidetu zuen (7. Oharra) eta 2021eko abenduaren 31n ordaintzeke dagoen zenbatekoa 31.237 euro epe luzera eta 16.533 euro epe laburrera da, "Taldeko enpresetan, elkartuetan eta bazkide EL" epigrafean aktiboa gutxituz eta "Epe laburreko zorrak - Bestelako partaidetzak epe laburrera" erregistratuta daudelarik, hurrenez hurren.

(17) Administrazio Publikoak-

Honakoa da 2020 eta 2021eko abenduaren 31n administrazio publikoei ordaindu beharreko saldoen osiera:

	Euroak	
	2021 (Hartzekodunak)	2020 Zordunak (Hartzekodunak)
Administrazio Publikoekiko bestelako hartzekoak (zorrak)-		
Zerga korranteagatiko aktiboak	-	182
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergatik		
Ogasun Publikoak hartzekoduna	(161.435)	-
Ogasun Publikoak hartzekoduna BEZgatik	(1.128)	-
Gizarte Segurantzako erakundeak hartzekodun	(101.782)	-
	(264.345)	182
		(266.017)

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gotzon Lobera	 Iñe Elorriaga	 Igor Arruza	 Jose Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iker Etxebarria	 Igor Ormaiztegui	 Iker Etxebarria	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



Sozietatea 1/2013 Foru Arauak ezarritako zerga-erregimenaren mende dago.

Indarrean dauden legezko xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo agintaritza fiskalak ikuskatzen ez dituen arte edo preskripzio-epea amaitzen ez den arte. Sozietateak agintaritza fiskalen ikuskaritzara irekita ditu bere jardueragatik ordaindu beharreko zerga guztietarako azken lau ekitaldiak.

Sozietatearen administratzaileek zerga horrekin lotzen diren zenbatekoak kalkulatu dituzte 2021eko ekitaldirako, baita ekitaldi bakoitzaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ikuskapenera irekita daudenetarako ere. Haien iritziz, urteko kontuetan, oro har, ez dago ikuskapenera irekita dauden ekitaldiak berraztertzea ekartzeko moduko eragin adierazgarria duen kontingentziarik.

(18) Erantzukizun Zibila-

Sozietateak ikasleen istripu-arriskuak estaltzen dituen aseguru-poliza gauzatu du.

Era berean, Sozietateak bere langileen istripu-arriskuak estaltzen dituen aseguru-poliza gauzatu du ere, eta norbanakoaren gehienezko mugek hitzarmenak finkatzen duen horietatik haratago doaz.

(19) Sarrerak eta Gastuak-

a) Negozio-zifraren Banaketa-

Sozietateak 2020 eta 2021eko ekitaldietan izandako ohiko jardunari dagozkion negozio-zifren zenbateko garbia Euskal Autonomia Erkidegoan garatu da.

Sozietateak ekitaldi honetan izan duen jarduera arruntaren ondoriozko negozio-zifraren kontzeptuak honela sailkatzen dira:

 Josune Bañales	 Garikoitz Meabe	 Gorka Lobera	 Josune Elorriaga	 Igor Arruza	 Josune Bergara
 Haizea Etxebeste	 Iñaki Mayar	 Igor Ormaiztegui	 Iker San Mateo	 Iker Villanueva	 Garikoitz Zaldibar



	Euroak	
	Zenbatekoa	
	2020	2021
Salmentak:		
Garraio kuota	50.062	74.966
Jantoki kuota	471.590	612.437
Kuota eskolarra	899.842	899.381
Kooperatiba gastuetarako kuota	8.100	10.530
Liburuak	157.085	155.084
Beste batzuk	122.383	213.733
	1.709.062	1.966.131

b) Batez besteko langile-taldea eta karga-sozialen banakapena-

2020 eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako batez besteko langile-taldea kategoriaz eta sexuz banatuta, honakoa izan da:

	Batazbesteko langilegoa		Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
Irakaslegoa	90	100	21	21	69	79
Besteak:	15	19	4	5	11	14
Administrazioa	8	12	2	3	6	9
Zerbitzu Orokorrak	7	7	2	2	5	5
GUZTIRA	105	119	25	26	80	93

2020 eta 2021 ekitaldietako ehuneko hogeita hamairu baino altuagoko elbarritasuna duten langileen batazbestekoa 2 izan da.

"Karga-sozialen" agiriaren galdu irabazien kontuen desglosea honakoa da:

	Euroak	
	Zenbatekoa	
	2020	2021
Enpresaren kargurako gizarte segurantzak	954.989	1.053.739
Bestelako gastu sozialak	33.034	55.460
	988.023	1.109.199

Haizea Etxebeste	Igor Mayor	Igor Ormaiztegui	Igor San Esteban	Iker Villanueva	Garikoitz Zaldibar



c) Bestelako informazioa-

Ikuskatzaileak egindako enpresa-zerbitzuen kontzeptuen ondorioz, 2020 eta 2021eko ekitaldietan 3.195 eta 3.250 euroko zenbatekoa duten ordainsariak sortu dira, hurrenez hurren.

(20) Hornitzaileei ordaindu beharreko batzbesteko epeen inguruko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. "Informatzeko betebeharra" 15/2010 legea, uztailaren 5koa-

Hornitzaileekin merkataritza eragiketak egiterakoan, ordaindu beharreko batzbesteko epeen inguruko informazioa hurrengokoa da:







	2021	2020
	Zenbatekoa	Zenbatekoa
Hornitzaileak ordaintzeko batzbesteko epea	50	48
Ordaindutako eragiketen ratioa	56	53
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	27	10
Egindako ordainketak guztira	1.526.859	1.351.355
Ordaintzeko pendiente daudenak guztira	406.412	157.008

(21) Artezkaritza Kontseiluko Kideei Eman Beharreko Ordainsariak-

Sozietateko Zuzendaritza Kontseiluko kide izateak ez dakar inolako ordainsaririk jasotzea karguan jarduteagatik. Administrazioaile bakar batek ere ez du ordainsaririk edo antzekorik jaso bere lan-zerbitzuen prestazio gisa ekitaldian zehar.

Artezkaritza Kontseiluko kideei ez zaie inolako aurrerakin edo krediturik eman, ezta bestelako abantailarik ere.

Halaber, 2021eko ekitaldian zehar Artezkaritza Kontseiluak sortutako gastuak, erantzukizun zibileko aseguru-primei dagokienez, 1.358 eurokoak izan dira (1.212 euro 2020ko ekitaldian).

 Iñigo Barjaola	 Iñigo Barjaola	 Getxo Labera	 Iñigo Barjaola	 Igor Arzu	 Iñigo Barjaola
 Iñigo Barjaola	 Iñigo Barjaola	 Igor Arzu	 Iñigo Barjaola	 Iñigo Barjaola	 Iñigo Barjaola

(22) Bestelako informazioa-

a) Ingurumen-informazioa-

Ez dago bidezko aurreikuspenekin estali beharreko ingurumen-
alorreko arriskurik eta kosturik.

Era berean, ez dago ingurumena babestearekin eta hobetzearekin
lotzen den kontigentziarik irekita, ezta ingurumen-arloko etorkizuneko inbertsio-
konpromisorik, ingurumen-arloko erantzukizunik eta arlo horretan jasotzeko
dauden konpentsaziorik ere.

Sozietateak ez du ingurumen-alorreko diru-laguntzarik jaso, ezta
ingurumenarekin lotzen den jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

b) Berotegi-efektua duten gasen emisio-eskubideareei buruzko gaineko informazioa-

Sozietateak 2020 eta 2021 ekitaldietan ez du berotegi-efektua duten
gasen emisio-eskubiderik erabili.

(23) Ondorengo Gertakariak-

Artezkaritza Kontzeiluak ez dauka jakinean 2021eko abenduaren 31n
ekitaldia itxi zenetik Urteko Kontuetan eragin nabarmena izan dezakeen
gertakaririk aurrean aipatutako datatik.

2022ko martxoaren 30ean

Artezkaritza Batzordea



Josune Bañales Regulez And.
Lehendakaria



Garikoitz Meabe Sorazu Jn.
Lehendakariordea



Gotzon Lobera Revilla Jn.
Idazkaria

Irune Elorriaga Garamendi And.
Diruzaina

Igor Arruza Arana Jn.
Kidea

Josu Bergara Aretxabaleta Jn.
Kidea

Haizea Etxebeste Pinto And.
Kidea

Izaskun Mayor Vicente And.
Kidea

Igor Ormaetxebarria Cantera Jn.
Kidea

Iratxe San Esteban Martinez And.
Kidea

Iker Villanueva Ruiz Jn.
Kidea

Garikoitz Zaldibar Aranburu Jn.
Kidea



KIRIKIÑO IKASTOLA, K. E.

2021EKO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI

DAGOKION KUDEAKETA TXOSTENA

- (1) Sozietaterako gertakari garrantzitsuak
Ekitaldiaren itxieraren ondoren gertatutakoak

Ekitaldia itxi den egunetik izan diren gertakari ekonomiko-finantzarioek ez dute urteko kontuetan eta Sozietatearen egoera orokorrean eragin handirik izango.

- (2) Aurreikus daitekeen sozietatearen bilakaera

Sozietatearen aldagai ekonomikoen aurreikuspenari dagokionez, orain arteko parametroei eutsiko zaie, eta, hortaz, ez da egungo ekitaldiarekiko aldaketa handirik izango.

- (3) Ikerketaren eta garapenaren alorreko
jarduerak

Sozietateak ez du alor honetan inbertsiorik egin.

- (4) Bere akzioak eskuratzea

Sozietateak ez du ekitaldi osoan bere akzioetako bat bera ere eskuratu, ezta eduki ere.

2022ko martxoaren 30ean

Artezkaritza Batzordea

Josune Bañales Regulez And.
Lehendakaria

Garikoitz Meabe Sorazu Jn.
Lehendakariordea



Gotzon Lobera

Gotzon Lobera Revilla Jn.
Idazkaria

Irene Elorriaga

Irene Elorriaga Garamendi And.
Diruzaina

Igor Arruza

Igor Arruza Arana Jn.
Kidea

Josu Bergara

Josu Bergara Aretxabaleta Jn.
Kidea

Haizea Etxebeste

Haizea Etxebeste Pinto And.
Kidea

Izaskun Mayor

Izaskun Mayor Vicente And.
Kidea

Igor Ormaetxebarria

Igor Ormaetxebarria Cantera Jn.
Kidea

Iratxe San Esteban

Iratxe San Esteban Martinez And.
Kidea

Iker Villanueva

Iker Villanueva Ruiz Jn.
Kidea

Garikoitz Zaldibar

Garikoitz Zaldibar Aranburu Jn.
Kidea



URTEKO KONTUEN INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOAREN INGURUAN AITORPEN NEGATIBOA

KIRIKIÑO, SOCIEDAD COOPERATIVA
I.K.F.: F-48086417

Behean sinatzen dutenek, aipatutako sozietatearen artezkaritza kontseiluko kide bezala, adierazten dute Sozietatearen kontabilitateari dagokion urteko kontu hauetan **EZ** dela ingurugiro izaerako inolako partidarik existitzen Kontabilitate Plan Orokorraren 5. puntuko hirugarren ataleko "Kontu laburtuen 4. elaborazio arauaren arabera (Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua) jaso beharko litzatekeena.

2022ko martxoaren 30ean

Artezkaritza Batzordea

Josune Bañales Regulez And.
Lehendakaria

Garikoitz Meabe Sorazu Jn.
Lehendakariordea

Gotzon Lobera Revilla Jn.
Idazkaria

Irune Elorriaga Garamendi And.
Diruzaina

Igor Arruza Arana Jn.
Kidea

Josu Bergara Aretxabaleta Jn.
Kidea

Haizea Etxebeste Pinto And.
Kidea

Izaskun Mayor Vicente And.
Kidea

Igor Ormaetxebarria Cantera Jn.
Kidea

Iratxe San Esteban Martínez And.
Kidea

Iker Villanueva Ruiz Jn.
Kidea

Garikoitz Zaldibar Aranburu Jn.
Kidea